

Aretxagazeta

Kuadrillategi aisialdirako proiektua abian



ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

**Anbulatorio
berria /8**

KIROLAK

**Euskadiko saskibalo
txapelketa /9**

LEINTZ GATZAGA

**Pilota
txapelketa /10**

ASTEAN BEHIN: ETXEBIZITZA ENKANTERA/4 • KIROLAK: KIROL ETXEKO ZERBITZUAK/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 1
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22
DOMEKA, 2
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK
Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Fax 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte-Laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide Elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kiroletxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi E.E. 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio M.E. 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Esk. 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi Geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Eskualde-Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze-Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:30

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: ARIENTZAN
Domekak: 12:30
GALARTZAN
Domekak: 11:30

OHARRAK

PLATAFORMAK KALE AGERRALDIAK

Aretxabaletako euskal presoak Euskal Herrira plataformak, Senideakekin bat eginda, hileko azken ostiraletan kale agerraldiak egingo ditu. Lehenengoa ostiral honetan izango, hilak 30, arratsaldeko 19:00etan Pagaldaixenean.

SPANK ETA X-AT GAZTETXEAN

Spank eta X-AT taldeek kontzertua eskainiko dute zapatuan herriko gaztetxean, gaueko 22:00etan.

UDAKO ZENBAKI SARITUA

Uda kirol elkarteko zozketan, oraingo astean, zenbaki saritua 29.197 izan da.

'NEGU KULTURAL'EKO EGITARAUUA LASTER KALEAN

Herriko Kultura Sailak, *Negu Kulturala* izeneko egitaraua gertatu du abendurako eta urtarrilerako. Besteak beste, egitarauan kontzertuak, komertzioetako erakusleho lehiaketa eta Takolo, Pirritx eta Porrortx pailazoen emanaldia iragarri dira. Horrez gain, betiko moduan, Udaleko Kultura Saila, herriko eskolekin lankidetzan, dagoeneko prestatzen ari da Olenztzero, bizar zuri eta errege magoen etorrera.

LORAMENDIRENAGENDA


TXAN MAGOAREN IKUSKIZUNA

Txan magoaren ekitaldian aldaketak izan direla iragarri gura du Loramendi euskara elkarteak. Hasiera baten, ikuskizuna herritar guztiendako egin behar zen gaueko 22:30ean. Hala ere, aldaketa batzuk izan direla eta, Txanen ikuskizuna ludotekako bazkideendako bakarrik izango da. Ekitaldia azaroaren 30ean egingo da, arratsaldeko 18:00etan, udaletxe zaharrean.

ORAINDELA...

Herriko Musika Bandari omenaldia

1991. urteko azaroaren 29an ondo merezitako omenaldia egin zioten Aretxabaletako Musika Bandari. Orduko alkateak berbaldia egin zuen eta eskerrak eman zizkion bandari, oroigarriak banatu, eta kalejira egin zuten. Kontzertua Durana kalean eman zuten. Egun, ez dago bandarik.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lupardia"

1. Izotz handia (esaldi adierazkorretan bakarrik)
-Gaur gabien kriston lupardia bota jok.
-Azelakotxe lupardia dauen.
2. Mozkorra
-Iez, San Martzialen guk arrapau geuen lupardia guk.



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Julen Landaluze
26an, 13 urte. Berandu bada ere, zorionak!



ARETXABALETA
Irati Romeo
28an, 15 urte. Zorionak, gurasoen eta, batez ere, Olatzen partetik!



ARETXABALETA
Mikel Arroiabe
1ean. Zorionak, ARETXAGAZETAKOEN partetik!



ARETXABALETA
Sandra Labrador
2an, 10 urte. Zorionak, gurasoen partetik. Eta ondo pasau!



ARETXABALETA
Olaia Etxenausia
2an. Zorionak, koadrilako partetik!



ARETXABALETA
Ibai Landaluze
3an. Zorionak, etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Ander L. de Armentia
3an. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan eta izeba Aneren partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

- * ESTUDIOAK
- * ESKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK

Beti karretean edo albuma dohanik !!



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

HAURRAK



UMEENDAKO MODA

Lezama merkatal zentrua, 15
943 77 14 86
Aretxabaleta

IBARRA estankoa



PRENTSA ETA IKASMATERIALA
Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

ATREBENTZIA EZ PADA / Euruen etorrerarako hasi zara gertaketan?




DEIANE MADINABEITIA
Langillie




LUISA QUINTERO
Langillie




BEGOÑA LARRABE
Langillie



ALEX GARAI
Langillie



MIKEL ALBERDI
Ikaslie



ROBERTO BRAGADO
Langillie

Egixe esanda gutxi. Lanien ointxe hasi gare horrekin, baiñe oin arte ez dot ezer egin eta badauket bilddur apur bat. Ohitu egingo gare, baiñe hasieran, kostau egingo jakule uste dot.

Ez, ez dot uste preparau biherrik dauketenik, nik biher dotena euro asko die, besterik ez. Euro asko euki ezkeru, seguru nago ez dauela inork problemarik eukiko.

Ez, badauket eurokalkuladorie, baiñe besterik ez dot egin. Hasieran, iguel eukiko dogu problemaren bat, baiñe gero ez. Nahikue informaziño emun dala uste dot, nahikue eta sobra.

Ez, ez dot ezer egin preparetako. Ez dauket eurokalkuladorarik be, aillegetan danielen ikusi biher. Ez dot uste problemarik eukiko dotenik, eta bestela, kalkuladoriez ibilli biher.

Bai, eskolan hasi gare euruek lanketan, zenbaki hamartarren bidez. Gutxi gorabehera badakigu zenbat balixoko dauen gauzak eurotan, eta etxien be badaukogu eurokalkuladorie.

Ez, ez dot ezer egin preparetako, baiñe bilddurrik be ez dauket. Eurokalkuladorie badauket erregalau egin dustielako, baiñe ni ez naz erosten fan. Datorrenien ohittuko gare.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EDUKIONTZIAK BETETA Herritarrok, gehienok, behintzat, birziklapenaren aldeko apustua egin dugu. Gero eta paper gehiago batzen ei da herri eta hirietan. Ez dago txarto. Batzuetan, oster, paper eta kartoiak edukiontzian sartu gura bai, baina ezinean gertzen gara. Behin baino gehiagotan aurkitu ditugu edukiontzia beteta, beraz; sarriago pasatu beharko dira jasotzera. /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4	ASTEAN BEHIN /5	KIROLA /6
Etxebizitza enkantera	Kuadrillategi proiektua	Kirol etxeko zerbitzuak
Udalak, Santa Kurtz kaleko etxebizitza bat eta garajea enkantera ateratzea onartu du.	Udaberritik prestaketa lanean ibili ostean, jadanik abian jarri da Kuadrillategi proiektua.	Kirol etxean hainbat zerbitzu eskaintzen dira. Gehienak Eibarko Garapen Proiektuak ematen ditu.

ASTEKODATUA

75

MINUTU JOKATU ZITUEN IGOR ARENAZAK DOMEKAN

Domekan Eibarrek Gijonen kontra jokatu zuen partiduan, Igor Arenazak hasieratik jokatu zuen. Min hartuta egon ostean, futbol zelaira itzuli zen Igor domekan, eta 75 minutu jokatu zituen.

BESTEKEKESANA

Oraindik bada Alkat eta Ezpanda bezalako 40 eta 60 arteko bertsolarien publikoa, zikiroetan eta abar. Baina hau protagonismoa galtzen ari da. Horren ondoan, zorionez, gazteagoekin sortzen ari da publiko bat, ez bada ere behar den neurrian. Geroz eta gazte gehiago heldu zaizkit Txapelketako finalerako sartzeen galdegitera, adibidez. Iruditzen zait horrelako bertsolariak sortzeak lagunduko duela zaleak ere sortzen. Erratan delarik gaur egun ateratzen diren gazte horiek ez direla hain Iparraldekoak... Ni ez naiz horrekin ados. Baigorriko laborari batentzat arrotza izanen da Sustrai bertsoan entzutea. Baina Alkat ere arrotza da Hendaia-ko hogeitorteko gazte batentzat.

AITOR SARASUA
EUSKALDUNON EGUNKARIA/01-11-24

HERRITARRENBERBAK / Arantxa Jaka



Amairik gabeko lasterketa?

Urte berri baten atarian aurkitzen gara. Eta, badirudi, aurtengo hau ere amesgarria izango dela. Bukatzen zaigun honek mende eta milurteko baten hasiera markatu digu. Eta ez hasiera makala! Datorrenak, berriz, gure hiztegiari bi hitz sartu beharko ditugula abisatzen digu: euroa eta globalizazioa. Esaten digute berdinduko gaituen eta beharrezko den sistema ekonomikoa dela hau. Ez noa analisi ekonomiko eta soziologikorik egitera, hau ez baitagokit niri; baina bai galdera bat luzatzea: honek guztiak nora garamatza? Ez ote gara ari sartzen amaigabeko lasterketa ilun, gogor, konpetitibo baten arrastotan? Gaur egungo errealitatea ikusirik (gosea, banaketa, gudua, gorrotoa, tratu txarrak, giza eskubideen eza, gatazka, hilketak...) eta etorkizuna usnatuz, nola sinistu sistema bat egoera latz eta larri baten irtenbidea dela? Nola sinistu, pobreak pobreago

eta aberatsak aberatsago egiten ari den sistema batean? Gauza bat daukat argi, gaurko gizartearekin ondo konpontzen naizela, ulertzen dudala; baina honek ez du esan nahi, besterik gabe, dena onartzen dudarik. Nire kezka, niri interesatzen zaidana pertsona da, eta hori kolokan jartzen duen guztia ez dut gogoko. Askotan pentsatzen dut gure indarrak ez ditugula ondo bideratzen, gauzak gure mende jarri beharrean, gu beraien mende jartzen garela; eta, uste dut hor dagoela gaitz guztiaren sorrera. Balore jatorrak, benetako baloreak hankaz gora jartzen ditugu, eta jaingo txiki eta arriskutsuen gurtzaile bihurtzen gara (denbora, lana, okupazioa, irabazia...). Itsutzen ari gara eta ez gara konturatzen, esklabutzan erortzen eta ez sumatzen... Nork aterako ote gaitu ilunpe honetatik? Inoiz pentsatu al dugu? Asmakizun bitxi bat uzten dut amaierarako, gure baitan sartu eta egiazko erantzun bat aurki dezagun.

“Gaurko gizartearekin ondo konpontzen naiz, ulertzen dut, baina honek ez du esan nahi dena onartzen dudarik”

HIRIGINTZA / Enkantea ofizialki argitaratu ostean, 26 egun egongo dira diru eskaintza Udalan aurkezteko

Iturri gorri frontoi pareko etxebizitza bat eta garajea aterako ditu enkantera Udalak

MIRARI ALTUBE

Udalak etxebizitza bat eta garajea enkante bidez saltzea onartu zuen astelehenean egin zen ohiko osoko bilkuran. Etxebizitza hori Santa Kurtz kalean dago, Iturri gorri frontoiaren parean, berri-berria da eta 30 milioitan aterako da enkantera.

Ez da ohikoa Udalak etxebizitza enkantera ateratzea, noizbait lokal komertzialen bat atera izan du, baina besterik ez. Oraingoan, ostera, Santa Kurtz kaleko 22-B atarteko lehenengo solairua eta bertako garaje bat salduko ditu Udalak, astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran onartu bezala.

ARRITZKOREKIN TRUKAKETA

Arritzeko enpresa eraikitzaileak Iturri gorri frontoiaren parean etxebizitzak egin aurretik hitzarmena sinatu zuen Udalarekin. Udalak gune hartan lursailak zeuzkan, eta lur horien truke etxebizitza bat eta garajea eman zizkion Gasteizko Arritzeko enpresak. Orain, berriz, enkantera aterako ditu biak Udalak.

Hogeita hamar milioi eska-sean aterako da enkantera, BEZ barne, eta interesatuek parte hartzeko Udaletxean egongo diren gutun-azalak hartu beharko dituzte. Gutun-azaleko orri horietan diru eskaintzarekin batera datu pertsonalak adierazi behar dira,



Diru eskaintza egin aurretik, etxebizitza eta garajea ikusteko aukera egongo da.

ondoren berriro Udalarari itzultzeko. Interesatuek, enkantea ofizialki argitaratu ostean, 26 bat egun izango dituzte euren eskaintza Udalan jakinarazteko. Epe hori pasatu eta gero, gutun-azalak zabaldu eta gehien eskaini

duenari salduko zaizkio etxebizitza eta garajea. Gero, Udalak 30 milioiren %2 fidantza gisa uzteko eskatuko dio.

Etxebizitza Santa Kurtz kaleko 22-B atartean dagoen lehenengo solairua da, eraiki berria,

eta 108 m² inguru ditu. Eskaintza egin aurretik gura duenak ikusgai izango ditu bai etxebizitza bai garajea ere. Udalak hainbat egun izendatuko ditu, aurrez jakinaraziko direnak, eta egun horietan joan beharko da ikustera.



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Menditik maratoira

Mendia gustuko duzuenontzat aste ederra izan da honakoa. Asteazken zehar emanaldi interesgarriak izan dira, eta tartean neska bat. Azken urteotan hain ezaguna bihurtu den **Edurne Pasaban**. Ea ba herriko neskei kirola egiteko grina sartzen dien, gehienetan mutilen izenak aipatzen ditugu eta. Jakina, ondoren aipatuko ditudan ere mutilak dira. Txoritxo batek esan zidan aurrekoan Donostiako maratoian hainbat atxabaltar ikusi zituela: **Andoni Miguel, Jose Jabier Irure, Fernando Uribealzo, Antonio Herruzo, Jon Iradi, Josu Urkia eta Mikel Uribebarria Aldalur**. Antonio Herruzok egin zuen denborarik onena. **Joseba Berezibarrek**, berriz, erbi lanak egin zituen. Berrogeita bi kilometro korrika, ez da gero broma. Eskerrak eguraldi ona izan zuten. Brometakoa ez da aurrekoan hemen esan barik utzi genuen izena. Parrokiako inaugurazio ekitaldian **Goio Eskibel** viatorista atxabaltarra ere izan zen. Gainera, Madriletik honaino etorri, eta guri aipatzea ahaztu. Barkatuko digula espero dut.

Eta honenbestez agurtzera noa, gaur Txan magoaren ikuskizunera noa. Aber magia apur batekin hurrengo astera arte ezkututzen nauen.

LABUR

Amaral enpresak egingo ditu Loramendi kaleko eta Araba ibilbideko saneamendu lanak

Urtero gordetzen du Udalak dirua saneamendu lanak egiteko. Aurten, Loramendi kaleko 2. eta 4. atarteetan eta Araba ibilbideko 26. eta 28.ean egingo dira. Asteleheneko osoko bilkuran Amaral enpresari eman zion udalbatzak lanok egiteko ardura.

45 milioi pezetako aurrekontua du Amaralek, eta abendu erdialdera hasiko da urhodiak aldatzen lau atarte horietan. Lau hilabete iraungo dute lanek; horrela, pazientzia eskatu diete auzokideei tarte horretan.

Gabonetako argiak jartzen ari dira

Dagoeneko hasi dira Udaleko langileak Gabonetako argidun apaingarriak jartzen herriko zuhaitzetan. Loramendi aldean hainbat lekutan jarri dituzte, eta Errekabarreneko zuhaitzak ere baditu. Hortaz, aurten ere, dotore izango dugu herria.

Istripua izan zuen Jesus Rubio medikuak

Jesus Rubio medikuak istripua izan zuen, Frantzia aldean, eskiatzen ari zela. Ez dakite istripua zelan gertatu zen, baina bai susto galanta izan zela. Larriunea dagoeneko pasatu da, eta orain, Gasteizko Txagorritxu ospitalean dago.

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Dorleta taberna
Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabaleta
Tel. 943 79 94 15

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN
KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA
943 79 31 87
ARETXABALETA

EUSKARA ETA KULTURA/ Bost koadrila elkartzen dira zapaturu, 40 bat gazte

Hilabete da Kuadrillategi proiektua abian jarri zela

MIRARI ALTUBE

Gipuzkoako zortzi herritan jarri da abian Kuadrillategi proiektua, tartean, Aretxabaletan. Gazteei aisialdian ere euskaraz berba egin daitekeela erakustez gain, gazte horiek herriko kultura dinamikan sartzea du helburu Kuadrillategi proiektuak.

Hilabete pasatxo izango da Aretxabaletako lau koadrila eta Eskoriatzako bat elkartu eta zapaturu goizak elkarrekin pasatzen dituztela. Ez, gainera, nolana pasatuta ere: eskulan tailerrak, mendira irteera, filmak ikusi... eta dena giro paregabe.

EUSKARA ETA KULTURAK BULTZATUTA
Kuadrillategi Gipuzkoako zortzi herritan jarri da abian; Debagoinen, Bergaran eta Aretxabaletan, hain zuzen. Gure herrian, Udaleko Euskara eta Kultura sailak bultzatu dute. Aspaldi zebiltzan herriko gazteen aisialdiarekin kezkatuta, eta proiektu egoia iruditu zitzaion. Udan dinamizatzaileak hartu zituzten, eta irailean 100 orduko ikastaroa egin ostean, Larraitz Inurrategi, Irune Barbero eta Larraitz Arando gazteekin elkartzen hasi ziren urrian. Hala ere, ez daude bakarrik lan horretan, hamabostean behin Lasartetik datorren koordinatzailearekin elkartzen dira eta Aretxabaletako koadrilen martxari jarraipena egiteko.

13 eta 15 urte bitarteko gazteek osatutako bost koadrila animatu ziren

Ez dute aspertzeko astirik izaten: eskulan tailerrak, Larrino eta Urkulu aldera irteera...

Herriko kultura giroan murgil daitezten gura du Udaleko Kultura Sailak

BOST KOADRILA ELKARTZEN DIRA
Proiektuaren berri Almen eta Kurtzebarri eskoletan eman zen, han daude eta Aretxabaletako gazteak. 13 eta 15 urte bitarteko gazteek osatutako bost koadrila animatu ziren Kuadrillategin par-


te hartzera, horietatik bat Eskoriatzako gazteek osatzen dute. Zapaturu goizetan elkartzen dira, 11:00etatik 15:00etara bitartean, eta ez dute aspertzeko astirik izaten: eskulan tailerrak, Larrino eta Urkulu aldera irteera... azaroko azken zapaturu, berriz, film bat ikusi dute.

Larraitz Inurrategi dinamizatzailearen esanetan, "ez da samurra gazteak aspertu barik mantentzea, baina orain artean, giro ona izan da nagusi eta gazteak gustura etortzen dira".

KULTURA DINAMIKAN SARTU GURAN
Kuadrillategi proiektuaren helburua aisialdian euskara bultzatzea da. Ez hori bakarrik, herriko kultura giroan murgil daitezten gura du Udaleko Kultura Sailak: "Aurrera begira, gazte hauek izan daitezke gure herriko kultura taldeetan parte hartuko dutenak; hori da, behintzat, gure asmoa", dio Inma Miguel Kultura teknikariak.

Ez da asmo txarra, eta gauzatu balitz, herriko kulturaren etorkizuna esku onetan geratuko litzateke. Kuadrillategi bi urterako proiektua da. Tarte horretan batutako emaitzak ikusi ostean erabakiko da aurrera jo edo ez. Ez da samurra izango gazteen interesa bizi-bizi izatea bi urte horietan, ea giro onak elkartzen dituen bost koadrilak eta gerora begira ere lagun talde polita sortzen den. Hortxe egongo litzateke proiektuaren arrakasta.

TXUTXUMUTXUA



Jende ugari erakarri zuen Patxi Zabaletak

Patxi Zabaleta euskaltzain, idazle eta Aralar alderdiaren sortzailea izan zen herrian joan den astean. Loramendi euskara elkarteak gonbidatuta, Nafarroaren inguruan berba egin zuen hark. Nafarroak Euskal Herriko kostaldean zituen lursailak galdu zitueneko kontuak gogorarazi zizkigun, eta, Patxi berak edo gaiak erakarrita, hogeita hamar lagunetik gora batu zen udaletxe zaharrean. Argi dago gaiak interesa sortzen duenean jendea ez dela etxean geratzen. /M.A.



Udalatx
Inmobiliari A

Sail eta etxebizitzaren salmenta Eskoriatzan

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behe-ek. ARRASATE

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETAKO

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3-Behea
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 01 28



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 00 33/79 42 56

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 616 965 795

Jou Diaz



Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 • 943 77 17 19
Basabe, 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

KIROL ETXEKO ZERBITZUAK

Eibarko Garapen Proiektuak ematen ditu kirol etxeke zerbitzuak

Aerobicak eta hirugarren adinekoen gimnasia erakartzen dute jende gehien


MIRARI ALTUBE

Aretxabaletako kirol etxeak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie herritarrei, tartean, hirugarren adinekoen gimnasia eta gimnasia terapeutikoa. Irailaz gerotik, gainera, enpresa berriak ematen ditu zerbitzu horiek, Eibarko Garapen Proiektuak, hain zuzen.

Aurtengo ekain inguruan, kirol etxeke zerbitzuak lehiaketara atara zituzten. Hiru enpresa aurkeztu ziren. Pili Muñagorriri, lehen bezala, aerobica eman zioten, eta Eibarko Garapen Proiektuaren esku utzi dituzte gainerakoak, hirugarren adinekoen gimnasia, gimnasia terapeutikoa, sasoiaren egoteko, gimnasia eta Atzegiko gimnasia, hain justu ere.

HIRUGARREN ADINEKOEN GIMNASIA

Ordutegi zabala eskaintzen du kirol etxeak, goizez nahiz arratsalde, norberak aukera dezan. Aerobicean hiru talde daude, ondo beteta hirurak ere. Sasoiaren egoteko gimnasia ere hiru talde osatu dituzte, eta guztira, 30 bat lagun ibiliko dira. Atzegiko gim-



Sasoiaren egoteko gimnasia hainbat adinetako jendea batzen da.

MIRARI ALTUBE

nasian, atzerapenak dituztenei egokitutako eskolak ematen dira, eta badira urte batzuk sei lagun aritzen direla. Gimnasia terapeutikoa du ikasle kopuru txikiena, seiko talde bakarra dago-eta.

Hirugarren adinekoendako gimnasia, bestalde, nabarmen egin du gora. "Jende kopuruaren gorakadaz gain, konturatu ginen

denek ez zutela gimnasia egiteko gaitasun bera, eta bi talde egin ditugu hobeto moldatzeko", dio Asier Mujika kirol zerbitzuaren teknikariak.

Zerbitzu horiez gain, igerilekuan ere hainbat ikastaro eskaintzen dituzte, hemendik aurrera, gainera, ez da taldea osatu arte itxaron beharrik izango.

XAKEA

Joan den astekoa atzeratu ostean, aste bukaeran bi partida jokatu beharko dituzte

Aste bukaera honetan xake partida bi jokatu beharko dituzte lau kote aretxabaletarrak, joan den zapatuan jokatzeko zena atzeratu egin zuen-eta Bilboko taldeak. Zapatuan, Gasteizko Ruta de Europa taldea izango dute aurrez aurre, eta domekan, berriz, Bilboko Peña Rey Ardid taldea. Domekako partida, gainera, etxean jokatu dute goizeko hamarretan.

FUTBOLA

Futbol zelaia itxiko diote UDAko preferentea taldeari bertan izandako istiluen ondorioz

UDAko preferenteak galdu egin zuen domekan Hondarribi taldearen aurka etxean jokatu zuen partida. Ondorioz, lehenengo izatetik hirugarren izatera pasatu da.

Aste honetan jakin da zein zigor jarriko zaion UDA taldeari orain aste batzuk izandako istiluentatik, isunaz gain Oñatirenen aurka jokatu behar duen partidua ezingo du Ibarran jokatu.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-UDA
Preferentea.
Zapatua, 15:30. Bergara.
UDA-Eibar
Gazteen Euskal Liga.
Domeka, 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.(2)-Andazpe
Gazteak.
Aretxab.(1)-Aretxab.(2)
Seniorrak.
Eguakotxa, 20:00. Iturri-gorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Hondarribi 2
Preferentea.
Lengokoak 0 UDA 1
Gazteen Euskal Liga.
UDA 2 Antzuola 1
Bigarren mailako erregionala.
Zumaiako 4 UDA 1
Bigarren mailako gazteak.
Urola 3 UDA 2
Lehenengo mailako kadeteak.
UDA (b) 3 Soràluz 0
A. Ondarroa 0 UDA 4
Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 15 Euskaljolaz 22
Bigarren mailako kadeteak.
Aretxab. (2) 21 Arrasateko 22
Añorga 22 Aretxab. (1) 12
Gazteak.

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta egokitzean diplomaturia

ZERBITZUAK

- Osteopatia:
Kraniala
Estrukturala
Funtzionala
- Lotura muskularrak

Aurrez lekua eskatzeko:
943 77 04 34



ERRETRATUZHARRA

Santa Rita eskolako neska-mutilak

Santa Rita mojen komentuan, gaur egun bezalaxe, garai baten ere eskolak ematen ziren. Ondoko erretratua 1957. urtean ateratakoa da. Eskolaurreko neska-mutilak dira, eta ikus daitekeen moduan guztiak uniformearekin joaten ziren eskolara. Gutxi gorabehera, 1950ean, 51n eta 52an jaiotako ikasleak ziren. Orduan neskak eta mutilak batera joaten ziren eskolara, baina jaunartzea hartu orduko banatzen zituzten; hortaz, argazki hau dugu eskolara batera joan zireneko azkeneko urtea.

Eskola guztiak, Erlijio eskolak izan ezik, gaztelaniaz ematen zituzten. Ana Rosak ondo gogoratzen du On Angelek euskaraz ematen zituen Erlijio eskolak. Era berean, Santa Ritako Agustin-dar mojetan nahiko leunak omen ziren, eta euskara guztiz ez bultzatu arren, ez zuten zigorrik jartzen neska-mutilak euskaraz mintzatzeko harrapatuz gero.

Garai hartan, Santa Ritan, eskolaurreaz gain, OHOk eskolak ere ematen ziren. Argazkiko neska-mutilak izan ziren, gainera, komentuan eta ikastetxean zaharberitze lanak egin aurretik OHO ikasketak han bertan egin zituzten azken ikasleak. Hona hemen guztien izen-abizenak:

Irakaslea: Dominika Madinabeitia.
Ikasleak, goiko ilaran, ezkerretik hasita: Maite Idigoras, Itziar Bengoa,



M^a Carmen Biain, Mari Bel Garciaetxabe, Pili Urrutia, Puri Biain, Amaia González, M^a Tere Bengoa eta Ana Rosa Etxebarri.

Bigarren ilaran: Ana Rosa Lasagabaster, Angelita Zubizarreta, Itziar Azkoitia, Arantxa Uribebarria, Juanita Bengoa, Begoña Adonegi, Ana Mari Rivera, M^a Angeles Rivera, Mila Pagaldai eta Loli Mayoral.

Mutiletan, hirugarren ilaran, ezkerretik hasita: Manolo Urtubi, Luis

Idigoras, Julio Orueta, Jose Pablo Urtubi, Luis Mari Zubizarreta, Joxe Angel Etxebarriarteun eta Juan Jose Orueta.

Eta azkenik, laugarren ilaran: Luis Antonio Aranburu, Joxe Zubizarreta, Alberto Zubizarreta, Aitor Galdos, "Poli" Bengoa, Migel Angel González, Pello Zubizarreta eta Iñaki Galdos.

Argazkia: Ana Rosa Lasagabaster

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 82 44



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaletako
Tel.: 943 77 11 76

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

**IMANOL
JANARI DENDA**

Gorbea kalea
Aretxabaletako
943 79 05 83

PAGALDAI

*Opari denda
Burrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaletako
943 79 10 14

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaletako
Tel.: 943 79 19 79



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14
ARETXABALETAKO